



HIRUGARREN BEHIN BETIKO EBAZPENA, Kudeaketa Ekonomikoko zuzendariarena, unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenen 2022-2023 ikasturterako deialdiaren zati bat ebazten duena.

Hezkuntza sailburuaren 2022ko ekainaren 14ko Aginduaren bidez, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko 2022-2023 ikasturterako ikasketa-beka, laguntza eta sorospentarako deialdia egin zen.

14/2022 Errege Lege Dekretuak, abuztuaren 1ekoa, garraioaren arloko iraunkortasun ekonomikoko neurriei buruzkoa, ikasteko beken eta laguntzen arloan, bai eta aurrezteko, efizientzia energetikorako eta gas naturalaren mendekotasun energetikoa murrizteko neurriei dagokienez ere, lauhun euroko zenbateko osagarria ezartzen du derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketak egiten ari diren edo hezkuntza-laguntzaren berriazko premia duten ikasleak diren eta 2022ko abenduaren 31n 16 urte beteta dituzten pertsona guztientzat, baldin eta 2022-2023 ikasturterako beken deialdiko beka, laguntza eta subsidioen onuradun badira.

Aipatutako Hezkuntzako sailburuaren 2022ko ekainaren 14ko Aginduaren 30. Artikuluan, eta abuztuaren 1eko 14/2022 Errege Lege Dekretuan ezarritakoaren arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Bekak, laguntzak eta sorospenak ematea I. eranskinean agertzen diren unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-mailetan diharduten ikasleei; hain zuzen ere, baldintzak betetzen dituztenei. Honen guztizko zenbatekoak 8.867.350,00 € jotzen du.

Bigarrena.- Bekak eta laguntzak ukatzea II. eranskinean agertzen diren unibertsitateaz kanpoko ikasleei, deialdian ezartzen diren baldintzak betetzen ez dituztelako.

Hirugarrena.- Hilabeteko epea irekitzea, ebazpen hau egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaioten Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari

TERCERA RESOLUCIÓN DEFINITIVA de la Directora Gestión Económica, por la que se resuelve parte de la convocatoria de becas, ayudas y subsidios para realizar estudios no universitarios para el curso académico 2022-2023.

Por Orden de 14 de junio de 2022 del Consejero de Educación, se convocaron becas, ayudas y subsidios al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles no universitarios para el curso académico 2022-2023.

El Real Decreto-ley 14/2022, de 1 de agosto, de medidas de sostenibilidad económica en el ámbito del transporte, en materia de becas y ayudas al estudio, así como de medidas de ahorro, eficiencia energética y de reducción de la dependencia energética del gas natural, establece una cuantía complementaria de cuatrocientos euros, para todas las personas que cursen estudios postobligatorios o sean estudiantes con necesidad específica de apoyo educativo y tengan 16 años de edad cumplidos a 31 de diciembre de 2022, que resulten beneficiarias de las becas, ayudas y subsidios de la Convocatoria de becas para el curso académico 2022-2023.

De conformidad con lo establecido en el artículo 30 de la Orden de 14 de junio de 2022 del Consejero de Educación, y con el Real Decreto-ley 14/2022, de 1 de agosto, ya mencionados,

RESUELVO:

Primero.- Conceder becas, ayudas y subsidios al alumnado de niveles de enseñanza no universitaria relacionado en el anexo I, que cumple los requisitos recogidos en la Convocatoria, por un importe total de 8.867.350,00 €.

Segundo.- Denegar las becas y ayudas al alumnado de niveles de enseñanza no universitaria, relacionados en el anexo II, ya que no cumplen los requisitos recogidos en la Convocatoria.

Tercero.- Abrir un plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica, para que las personas interesadas puedan presentar recurso de alzada ante el Viceconsejero de Administración y Servicios.

Vitoria-Gasteizen/En Vitoria-Gasteiz

ANE URKIOLA ALUSTIZA
KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARIA